## UDAL-BATZARRA 14/03

## UDAL-BATZARRAK, 2003ko uztailaren 29an EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Fidel Azpiroz Arrillaga

**ZINEGOTZIAK:**
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Silvia Dos Santos Leite
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesus Mª Arsuaga Lizaso
Nieves Alarcos Martinez
Mª Carmen Egurza Salaberria

**IDAZKARIA:**
Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2003ko uztailaren 29an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Mikel Zubillaga Galarraga eta Juan Jose Martin Zubelzu Zinegotzia ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria and.

### 1.- 2003KO EKAINAK 14 ETA UZTAILAK 10EKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak 2003ko ekainaren 14ean eta uztailaren 10ean egindako bilkuretako aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 14 de junio y 10 de julio de 2003.

### 2.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 318tik 374ra biak barne, korporakideek jakitun geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 318 al 374, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

## 3.- UDAL DIRUZAINAREN IZENDAPENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

*"Naiz eta dekretuen zerrenda horretan ikusten duzuen bezela behin-behinekoz izendapen hori dekreto bidez egina dagola, orain legealdi honetarako behin-betiko izendapena egitea dagokigu eta horretarako 164.2 artikuluan 781/86 Legegintz Errege Dekretuaren agintzenduenaren arabera, Altxorzainaren postua hartuko duen pertsonak, postuaren kargu egin baino lehen, fidantza bat ipini behar duela eta 1963ko uztailaren 16ko aginduak onetsitako laugarren eta zortzigarren azalpenek fidantza hau aurrekontuaren %4 eta %6aren bitarteko zenbatekoan finkatzen dutela; hala ere Zinegotzia fidantza jarri gabe gera daitekeelarik, Udaletxeko kide guztiek horrela erabakiko balute izendatuen gestioaren erantzunkizuna denen gain.*
*Beraz, hasi berria den legealdi honetarako behin-betikoz Udal Ogasuneko jarduneko diruzaina izatea Jose Ignacio Otermin Zinegotzia porposatzen da eta bere ordezkoa Silvia Dos Santos Zinegotzia eta izendatuen gestioaren erantzunkizuna denen gain har dadin Udalbatzarkideei eskatu".*

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ikusirik.

Partaideek aho batez erabaki dute Udal-Ogasuneko Altxorzaina Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzia izendatzea eta Silvia Dos Santos Leite ordezkoa; indarrean dauden Legezko Xedapenetan aurrikusitako fidantza Udal-Altxorzainari ez jarri araztea, eta ondorioz, gestioak eragindako erantzunkizuna Udalbatzakide guztien gain joatea.

Visto el informe de la Sra. Secretario-Interventor.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos nombrar tesorero titular de la Hacienda Municipal al Concejal D. Jose Ignacio Otermin Garmendia y suplente a la Concejal Dña.Silvia Dos Santos Leite; eximiéndolos de la constitución de la fianza fijada legalmente y asumiendo la Corporación la responsabilidad solidaria por la gestión del designado.

## 4.- BAKE-EPAILE ETA ORDEZKOAREN AURKEZPENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak partaideei adierazi die:

*"Bake-epaile eta ordezkoaren izendapena egitea dagokigu orain, hau lau urtez behin egin beharrekoa denez 101/1 artikuloan "Ley Organica del Poder Judicial" 6/85 dionaren arabera eta tramite guztiak bete ondoren Alkatetza honek uztailaren 18 dekreto bidez egindako deialdiaren ondoren jarraian agertuko ditudan bi hautagai hauek aurkeztu dira:*
*Mikel Calleja Elizaran jauna, bere NAN 15965707, jatorriz Anoetakoa eta adina 40 urte eta orain arte Anoetako Bake epailea eta Luis Mª Larburu Aizpurua jauna, bere NAN 15258615, jatorriz Oiartzungoa eta adina 31 urte, lanbidea zuzenbidean lizentziatua, orain Oiartzungo bake epailea dena.*

*Ikusirik, orain arte Anoetako Bake epailea izan dena aurkezten dela eta honek orain arte karguak eskatzen dizkion betebeharreko guztiak ondo bete dituela inolako eragozpenik gabe eta bestalde berak aurrera jarraitzeko inolako ez legezko trabarik ez dagoela.Beraz, proposatzen dut Mikel Calleja Elizaran jauna, hautagi bezela Anoetako Bake epaile lanetarako eta bere ordezkoa Luis Mª Larburu Aizpurua jauna".*

Bake-epailearen, bai titular bai ordezkoaren aukeraketa egiteko hasiera eman zaion espedientearen berri eman ondoren, eta bertan, jarraitu beharreko legalite eta prozedurari buruz Udaletxeko Idazkariak luzaturiko txostena agertzen delarik.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehenengo.- Mikel Calleja Elizaran, N.A.N zkia 15.965.707, 40 urtekoa Bake-Epaile titularra izendatzea eta Luis Mª Larburu Aizpurua, N.A.N zkia 15.258.615, 31 urtekoa Bake-Epaile ordezkoa izendatzea.

Bigarren.- Erabaki honen berri, Tolosako Lehen Auzialdiko eta Argibideetarako Epaile Jaunari jakinaraztea, Justizi Auzitegi Gorenaren Gobernu Sailara eraman dezan.

Dada cuenta del expediente incoado para el nombramiento de Juez de Paz, tanto titular como sustituto, en el que obra el informe emitido por el Secretario del Ayuntamiento sobre legalidad aplicable y procedimiento para llevarlo a término.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Elegir a D. Mikel Calleja Elizaran, D.N.I nº 15.965.707, de 40 años de edad Juez de Paz titular y a D. Luis Mª Larburu Aizpurua, D.N.I nº 15.258.615, de 31 años de edad Juez de Paz sustituto.

Segundo.- Remitir el acuerdo adoptado al Juez de Primera Instancia e Instrucción de Tolosa (Gipuzkoa), para su elevación a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia.

## 5.- BIZTANLEEN UDAL-ERROLDAREN ZUZENKETA, 2003KO URTARRILAREN 1EKO DATAZ.

Ikusirik, Biztanleen Erroldari buruz bi mila eta hiruko urtarrilaren batekiko egin den urteko zuzenketari dagokion espedientea, laburpena honakoa izanik:

Visto el expediente de rectificación anual a uno de enero del año dos mil tres del Padrón Municipal de Habitantes, que presenta el siguiente resumen:

| | |
|---|---|
| Eskubidezko biztanlegoa 2002ko urtarrilaren 1ean<br>Población de derecho a 1 de enero de 2002:.......................................... | 1723 |
| Altak, 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko urtarrilaren 1 arte<br>Altas, desde el 1 de enero de 2002 a 1 de enero de 2003:..................... | 136 |

| | |
|---|---|
| Baxak, 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko urtarrilaren 1 arte<br>Bajas, desde el 1 de enero de 2002 a 1 de enero de 2003:...................... | 81 |
| Eskubidezko biztanlegoa 2003ko urtarrilaren 1ean<br>Población de derecho a 1 de enero de 2003:.......................................... | 1778 |

Partaideek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehenik: Biztanleen Udal-Erroldari buruz 2003ko urtarrilaren batekiko egin den urteko zuzenketa onestea.

Bigarrenik: Hamabost eguneko epean jendaurrean aurkeztea, interesatuen aldetik egokitzat jotzen diren iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezen; aurkezturiko iradokizunak Udalbatzak berak erabakiko dituelarik.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero: Aprobar la precedente rectificación anual del Padrón Municipal de Habitantes a uno de enero de 2003.

Segundo: Exponer al público por el plazo de quince días, a fín de que los interesados puedan formular las reclamaciones que estimen oportunas, las cuales serán resueltas por la propia Corporación.

**6.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO DIPUTATUEN KONTSEILUAK 2000KO ABENDUAREN 5EAN EMANIKO EBAZPENAK ETENDA UTZI ZUEN ANOETAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO R.1 AREARI, 2003KO APIRILAREN 10EKO PLENOAK HASIERAKO ONARPENA EMATEN ZUEN ESPEDIENTEAREN TRAMITEA GELDITZEA.**

Otermin jaunak hitza hartzen du ondorengo proposamena egiteko:

"*Aurtengo apirilaren 10eko Udalbatzarrean, Arau Subsidiarioen S-1,S-2,A-25 eta A-14 areen aldaketak onetsi ziren.*

*Nahiz eta bi areak goiz-zerendako puntu ezberdin bezala aztertu eta onetsi, benetan unitatee bakar bat osatzen dute, ikastola inguratzen duten lursailak eta babes ofizialeko etxeen eta ikatolaren arteko lursailak baitira.*
*Pleno hartan EA/EA talde politikoak onespena atzeratzea proposatu zuen, ondorengo zioak direla medio:*
*1.- Hirigintza batzordean aztertu gabe zegoelako.*

Toma la palabra el Sr. Otermin para explicar y presentar la siguiente propuesta de acuerdo:

*"El Pleno de fecha 10 de abril del corriente año procedió a aprobar la modificación de las Normas Subsidiarias en relación a las Areas S-1,S-2,A-25 y A-14.*
*Aunque ambas areas se trataron y aprobaron como puntos distintos del Orden del Día, realmente forman una Unidad, al comprender todo el terreno que rodea la Ikastola, y el que se encuentra entre la Ikastola y las Viviendas de Protección Oficial.*
*Ya en aquel Pleno el Grupo Municipal EAJ/EA propuso que se pospusiera tal aprobación, por los siguientes motivos:*
*1.- Porque ni siquiera se había tratado en ninguna Comisión de Urbanismo.*

*2.- Onesteko mementurik onena ez zelako, hauteskundeetatik sortuko zen Udalbatza berriaren lana hipotekatuko zuelako.*

*3.- Anoetako Kirolgunea handitzeko aukerarik ematen ez zuelako, gure ustez, ikatolaren eta egingo den kiroldegiaren inguruan kokatu behar baita.*
*Gainera, ez da ongi ulertzen zer lortu nahi den S-1,S-2 eta A-25 areetako Hirigintza-arau Orokorrekin, ez eta eremu horietako bakoitzeko arau zehatzekin.*
*Ondorioz, S-1,S-2,A-25 areen eta A-14 arearen espedienteak bertan behera uztea proposatzen zaio Udalbatzari, dagoen dokumentazioa osoa Hirigintza batzordeari eramtatea, zehazki azter dezaten eta ondoren, berriro plenora eramango da onartuta izan dadin".*

*2.- Por considerar que no era el momento oportuno para su aprobación, ya que hipotecaba el futuro de la Corporación que pudiera resultar de las próximas elecciones.*
*3.- Porque no permitía la posible aplicación de la Zona Deportiva de Anoeta que, en nuestra opinión, debía centrarse alrededor de la Ikastola y el futuro Polideportivo.*
*Además, no se acaba de entender qué es lo que se pretende con las Normas Urbanísticas Generales del Area S-1,S-2 y A-25, ni con las particulares de cada uno de esos ámbitos.*
*Por ello,lo que se propone al Pleno es suspender la tramitación de los expedientes referidos a las indicadas Areas S-1, S-2, A-25 y Area A-14, remitiendo toda la documentación existente a la Comisión de Urbanismo, para su estudio detallado, en cuyo momento se volverá a presentar a Pleno para su aprobación, con las modificaciones que se consideren oportunas".*

Partaideek aho batez proposamena akordio egin dute.

Propuesta que se eleva a acuerdo por unanimidad.

Azkenik jakinarazten da bilkurara etorri direnen artean, ondorengo interbentzioak izan direla:

Finalmente se hace constar que el público asistente a la Sesión ha tenido las siguientes intervenciones:

<u>2. puntuari dagokionez:</u>

Nik esan nahi nuke 366 eta 367 dekretuak espainolez idatziak daudela eta hori Anoetako Udalak onartu zuen euskal ordenantza eta euskararen planaren aurkakoa dela iruditzen zait eta baita ere herritarren eskubideen murrizketa.

<u>5. puntuari dagokionez:</u>

.. maiatzaren 25ean, 409 biztanle egon zirela hauteskundeetan beren ordezkariak hautatzeko eskubiderik gabe.

6. puntuari dagokionez:

Eskatzen dut puntu hau mahai gainean uztea ulertzen dudalako bilkura baten aurretik 48 ordu lehenago dokumentatuta egon behar dugula. Era berean galdetu nahi dut ea txosten jurídico edo alegaziorik izan den.

Beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat jotzen da arratsaldeko 19 ordu eta 45minutu direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak fede ematen dudalarik.

Sin más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 19 horas y 45 minutos; de todo lo cual, yo el Secretario doy fé.